

>> 2011-05-02



Abaltzisketan ospatuko da aurtengo Eskola Txikien Jaia

**Ekainaren 12an, igandean, Gipuzkoako Eskola Txikien Jaia ospatuko da Abaltzisketan. Antolatzaile lanetan bertako Txalburu Eskola eta herriko gurasoak arituko dira.**

Proiektu txiki baina sendo honi jarraipena emateko ekainaren bigarren igandean, hilaren 12an, Eskola Txikien jaia antolatu da Abaltzisketan. “Jaia eta ospakizuna etorkizuneko erronkekin uztartu nahi ditugu, ez baitugu ulertzen Abaltzisketarik eskola txikirik gabe” adierazi du Joxe Ramon Mujika, jaiaren koordinatzaileak.

Gaur egun 27 eskola txiki daude Gipuzkoan, eta Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Koordinatzaile Mikel Olanok ere herri txikien eta eskola txikien arteko lotura nabarmendu du: “garbi dugu eskola txikia herri txikietako bihotza dela”.

Garai batean Abaltzisketan bazen eskola, baina 1975. urtean itxi egin zen. 1999ko irailean Abaltzisketako herriak berriro herriko haurrei bertan ikasteko aukera eman zien. Amezketako Zumadi Eskolaren ikasgela bat bezala ireki zen, haur hezkuntza mailakoa, 2000-2001 ikasturtean lau ikasle gehitu ziren.

2001-2002 ikasturtean berriz beste hiru haur eskolaratu ziren eta jangela zerbitzua eskaintzen hasi zen. Baina urte horretan Amezketara jeitsi behar izan zuten lehenengo mailako ikasketak burutzera. Guraso eta batipat udalaren lanaren ondorioz, 2002-2003 ikasturtetik aurrera lehenengo mailako haurrek herrian bertan ikasten gelditzeko aukera lortu zen.

2003-2004ko ikasturtean oraindik Amezketako Zumadi Eskolaren zati bat bezala izaten jarraitzen zuen 16 ikaslerekin eta bi irakasleen ardurapean. Baina ikasturte horretan jakin zen hurrengo ikasturtean Abaltzisketako herri eskola berri bat izango zuela, hau da,

30 urte ondoren berriro Abaltzisketan herriko eskola irekiko zela. Benetan albiste zoragarria izan zen hau. Ikusia dago lan askoren poderioz eta guztion konpromezuarekin gauzak lortzen direla.

Beraz, 2004-2005 ikasturtean Abaltzisketako herriak "Txalburu Eskola" izeneko eskola txiki bat lortu zuen. Haur Hezkuntza osoa eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila izango zituen.

2006. ko abenduaren 22 an, Abaltzisketako eskolako guraso, ikasle eta irakasleak Santo Tomas feria ospatzen ari ziren bitartean, eskolako gurasoen ordezkari bat, eskolako zuzendaria eta herriko alkatea, Donostian bilera garrantzitsu batean bilduak ziren. "Ezin ahaztu bileratik bueltan agertu ziren une hura; Santo Tomas feriaren ospakizunari amaierarik borobilena emateko berri zoragarri batekin agertu zitzaizkigun: Txalburu Eskolak Lehen Hezkuntza osoa, hau da; 6. mailararte, izateko baimena jaso zuen", gogoratu dute bertako ordezkariak.

Orduz gero Abaltzisketan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza osoa ikasterik dute. Gaur egun, 2010-2011 ikasturte honetan, 4 gelatan banatuta dauden 37 ikasle dituen eskola du Abaltzisketak. Jangela zerbitzua ere badu, eta herriko Ostatu Tabernan egunero 16 ikaslek bazkaltzen dute.

Txalburu Eskola sortu zen unetik hona, bide luzea jorratu behar izan dute bertako arduradunek. "Bide honetan, gauza asko lortu ditugu eta gaur egun harro sentitu gaitzke daukagun guztiarengatik. Baina esan ohi den bezala, beti dago zer hobetua eta zer egin", zioten abaltzisketarrek.